







## Energia kontsumoa EAEn



### Energiaren kontsumoa EAEn

#### Energia elektrikoa

Euskadin kontsumitutako elektrizitateak %0,5 egin zuen gora martxoan, 2016. urteko hil berean izandakoaren aldean. Arloka, industrian %1 igo zen, etxekoan %4,5 eta hirugarren sektorean edo zerbitzuetan %2. Lehen hiru hilabeteetan kontsumoak %1,2 egin zuen gora, 2016ko epealdi berarekin alderatuta; etxeko sektorean %4,8 igo zen, zerbitzu arloan %2,5 eta industrian %0,5. Industrian gora egin zuten sektoreak, besteak beste, hauexek izan ziren: kimikoa (+%8,1), burdinazkoa ez den metalurgia (+%5,7), kautzuzko eratorriak (+%5,7) eta elikaduragintza (+%4,3). Behera egin zuten sektoreak siderurgia eta galdagintza (-%4,9) izan ziren.

#### Gas naturala







Martxoan, gas naturalaren guztizko kontsumoak %5,1 egin zuen behera, 2016ko martxoan izandakoarekin konparatuta. Zentral termikoena %18,9 jaitsi zen eta gainerako sektoreena %3,8. Lehen hiru hilabeteetan kontsumoak %3,3 egin du gora, aurreko epealdiaren aldean, (+%3,8 CCTT-n eta +%3,2 gainerako sektoreetan).

#### Erregaiak garraioan

Otsailean, garraioan erregaien kontsumoa %3 igo zen, 2016. urteko hil berean izandakoarekin konparatuta. Gasolinarenak %4,6 egin zuen behera eta A gasolioarenak, berriz, %3,8 egin zuen gora. Lehen bi hilabeteetan kontsumoak %7,2 igo zen, 2016koarekin alderatuta. Hala, gasolinen kontsumoak %1,1 egin zuen gora eta A gasolioarenak %7,8.

Iturriak: EEEK prestatua, CORES, Enagás eta Iberdrolaren datuetan oinarrituta.

## Kanpoko Egoera








### EAEtik kanpoko egoera

**Petrolioaren kontsumoa munduan**  
 Martxoan, munduan petrolioaren kontsumoa egunean 96,7 milioi kupel izan zen (2016ko martxoan izandakoaren aldean, %1 igo zen). Epealdi berean, Europar Batasunean %0,8 egin zuen behera kontsumoak, 13,9 Mbpd kantitatara iritsiz; Txinan %3,5 egin zuen gora, eta 12,6 Mbpd kontsumitzera heldu zen; AEBetan, ordea, %0,1 jaitsi zen, eta 19,6 Mbpd kopuruan kokatu zen. Munduan, oro har, azken 6 hilabetean, eguneroko petrolioaren batez besteko kontsumoa %1,6 igo da, Txinan %3,2, AEBetan %0,4 eta Europar Batasunean %2,3.

**Energiaren kontsumoa Espainian**  
 Espainian, gas naturalaren kontsumoak %1,3 egin zuen behera martxoan, 2016ko hil horretan izandakoarekin alderatuta. Lehen hiruhilekoan metatutako kontsumoak %8,3 egin zuen gora. Elektrizitatearen kontsumoari dagokionez, gora egin zuen martxoan, %1,1, 2016ko martxoan izandakoaren aldean. Lehen hiruhilekoaren kontsumoak %1,4 egin zuen gora, iazko epealdi berarekin erkatuta. Espainian, errepideetan erregaien kontsumoak %2,2 egin zuen behera otsailean, 2016ko hil berean izandakoarekin konparatuta; gasolinaren kontsumoa %4,1 jaitsi zen eta gasolioena %1,8. Lehen bi hilabetean metatutako kontsumoak %0,8 egin zuen gora, 2016. urteko epealdi beraren aldean, (%1 jaitsi zen gasolinena eta %1,2 igo zen gasolioena). Bestetik, hegazkinetan erabiltzen den kerosenoaren kontsumoak %8,4 egin zuen gora otsailean, eta lehen bi hilabetean izandako kontsumoak %11,5 egin zuen gora, aurreko epealdiarekin erkatuta.

Iturriak: REE, CORES, Enagás, EEEk prestatua, AIE eta EIAren datuetan oinarrituta.

## Energiaren prezioa



### Energiaren prezioa

#### Petrolioaren prezioa

Brent petrolio upelaren batez besteko prezioa 52\$ (48,6 €) izan zen martxoan. Urtebetean prezioak %33 egin zuen gora (%38,4 eurotan).

#### Elektrizitatearen prezioa

OMIE eguneroko merkatuan, Espainian, elektrizitatearen prezioa 43,2 €/MWh izan zen martxoan; duela urtebete zegoenaren aldean, %55,4 egin zuen gora.

#### Gas naturalaren prezioa

Alemanian, inportazioaren batez besteko prezioa 18,1 €/MWh izan zen otsailan, eta %15,7 igo zen, 2016ko hil berean izandakoarekin erkatuta. Martxoan, EGIX-en prezioa 16,1 €/MWh izan zen (2016ko martxoan izandakoarekin alderatuta, %33,6 igo zen). Spot merkatuetan, martxoan Henry Hub-en prezioa 9,3 €/MWh izatera iritsi zen eta Japonian 24,6 €/MWh (2016ko hil horretan izandakoaren aldean, %75,8 eta %17,8 egin zuten gora, hurrenez hurren).

#### Erregaiaren prezioa

EAEn, otsailan, gasolioaren prezioa 1,11 €/l izan zen (urtebetean %20,7 igo da), eta gasolinarena 1,23 €/l (urtebetean %16,3 egin du gora).

#### CO<sub>2</sub>-aren prezioa

CO<sub>2</sub>-aren EUA baimenaren etorkizuneko prezioa 5,06 €/t izan zen martxoan, eta urtebete lehenago izandakoarekin konparatuta, %3,6 igo da.

Iturriak: EEEK prestatua, OMIE, CESUR, CNE, EEX, Japoniako Industria Ministerioa eta BAFaren datuetan oinarrituta.